

HIRU OLATUAK

Bermeon itsasgizona izandako Ignacio Madariagak kontatuta 1921an

Behin sartu ei ziren Elantxobeko portura Bermeoko txalupa batzuk arribadan, eta herrira atera ei zituen arraunak, belak, paloak eta danak, otzarak ez beste guztiak.

Agure bat joan ei zen gauerako bere txalupara lo egiten -erretzailea bera.

Halako baten etorri ei ziren gonagorridun andra bi txalupara agurea berea txalupan lo zegoen artean. Askatu ei zituzten sokak eta hasi ei ziren andra biak abanten eta *a cada palada sien leguas* esaten, eta Habara heldu ei ziren. Orduen herrira salta ei zuten euren gauzak egiten zituzten bitartean, agureak ere salta eta Habanako arbola bati adarra kendu eta txalupara arin etorri eta pipa errretzen hasi ei zen.

Etorri ei ziren noiz edo noiz andra biok, eta hasi ei ziren euren artean: pipa usaina dago hemen: hum! Gizonen bat sartu ote zaigu?

Hau entzuten agurea isilik egon ei zen, isilik mutilek, asmatuko ete zuten beldurrez.

Gehiago barik hasi ei ziren berriro ere abanten, eta gosaldu baino lehen heldu ei ziren Elantxobera.

Agureak gau hartan Habanan egon zela lagunei sinestarazteko, hango zuhaitzen adar hezea erakusten ei zuen.